



Alberto Elsoegi

«Sentitzen dugunaren isla da gure musika»

Elurra ari du mara-mara. Buena-wista eraikinaren ondoko taberna batean, Jauko Barik taldeko ki-deekin dugu hitzordua. Neskez osatutako euskal musika talde bakanetakoa da. Itsaso eta Enarekin elkartu gara. Haizea ezin izan da etorri. Bianan harrapatu baitu elurteak.



Iñaki Lazkano

Neskez osatutako talde gutxi dago Euskal Herrian.

Itsaso: Neska asko dabil musikan. Musikazale asko dago. Baita musikari asko ere. Neskez soil-soilik osatutako taldeak aurkitzea, ordea, zailagoa da. Musika gogorrean, are eta gehiago. Ez dakit zergatik oten den. Baina egia da izan diren apurrek gutxi iraun dutela. Finean, musikaren mundua mutilez osaturik dago. Eta, batzuetan, neskekiko aurreitziak daudela nabari da. Jendeak eszenatokira so egiten duenean, hiru neska ikusten ditu, ez hiru musikari. Eta horrek kristoren amorrua ematen

Fitxa teknikoa

Taldea: Jauko Barik

Itsaso: Ahotza eta gitarra jotzailea

Enara: Baxua eta koroak

Haizea: Bateria eta koroak

Hurrengo kontzertuak:

-Martxoak 12:

Goiko Eskola (Oiartzun)

-Martxoak 20:

Arrasateko gaztetxea

Kontaktua: 943 29 16 20

dit. Dena dela, jarrera hori ez dago soilik musikan. Gizarte esparru guztietan bai-zik; gizarte matxista batean gaude.

Kaleratutako bi diskoak kontuan harturik, hardcore musika egiten duzuela esan daiteke.

Itsaso: Ez ditugu etiketak atsegin, egiten dugun musika ezin baita estilo jakin batekin definitu. Oso musika ezberdina entzuten dugu hirurok. Musika sortzerakoan ez dugu estilo zehatzik bilatzen. Gurea punk-rock musika dela diote batzuek. Hardcore musika dela, berriz, beste batzuek. Heavy-a dela dionik ere bada. Nire ustez, ordea, gure musikak berezko nortasuna du, ezin da hain parametro zurrutetan sailkatu. Gure musikan doinu gogorak nagusi diren arren, melodiak ere garrantzia du.

Zer-nolako musika entzuten duzue?

Itsaso: Nik, batez ere, metala dut gustuko. Atzerrian talde interesgarri asko dago. Bertakoei dagokienez, Eraso eta Erre dira azkenaldian gehien erakarri haute-nak. Amorrua duen musika egin nahi dugu.

Enara: Oso musika ezberdina entzuten dut. Unearen arabera. Musika talde ugari atsegin ditut, atzerrikoak zein bertokoak. Zea Mays, esaterako. Dena dela, oso ezagunak ez diren talde on askorekin egin dugu topo. Maketadun taldeak dira gehienak. Ezezagunak, baina apartak.

Hitzei dagokienez, ukitu feminista nabarmena du zuen lehen diskoak. Sexua jorratzerakoan, bereziki. Bigarrenan,

"Buenawistak musikan aritzeko aukera eskaini digu"

baina, iradokizunaren eremuan murgildu zarete gehiago.

Itsaso: Sentitzen dugunaren isla dira gure abestiak. Lehen diskoan zuzenagoak ziren hitzak, beharbada. Baina ez genituen hitz feministak propio bilatu. Mota guztietako hitzak daude disko horretan. Sexuari dagokionez, alor horretan ere sentitzen duguna islatu nahi izan dugu beti. Finean, mutilek ez dute halako hitzik idazten. Sentitzen duguna idazten dugu, eta sentitzen dugunak gu gara. Eta, jakina, emakumeak gara. Horrexegatik dira ezberdinak gure hitzak. Bigarren diskoan —"BZZB eta Goxatu!"—, ostera, antzeko hitzak ere badira.

Kritika onak jaso zituen arren, ohargabe samar pasatu zen bigarren diskoa.

Itsaso: Hala da. Bigarrena lehena baino hobea den arren, ez du behar adinako oihartzuna izan. Esan Ozenki zigiluarekin kaleratu genuen "Jauko Barik" diskoa eta zabalkunde handia izan zuen. "BZZB eta Goxatu!", aldiz, autoekoitzi egin dugu. Eta, egia esan, komunikabideek ez ziguten kasu handiegirik egin. Halakoetan beti dute lehentasuna diskoetxeek.

Zer duzue esku artean orain?

Enara: Entseguetan gabiltza buru-belarri. Hil honetan kontzertu batzuk ditugu, eta udara aldera Europan barna bira egiteko asmoa ere badugu. Alemanian eta Herbehereetan izan ginen iaz, eta oso esperientzia polita izan zen. Itzultzeko irrikitan gaude. Beste disko bat egiteko gogoia ere badugu. Baina, horretarako, goiz samar da oraindik.



"Arbelaren gainean"

• ELKAR • Xabier Mendiguren Elizegi • Orrialdeak: 160


Fikzioaren eta saiakeraren arteko mugan jotasean dabil Mendiguren Elizegi azken liburuan. Familiako adarretan aztarnika ibili ondoren, pertsonaia egiazko baina misterioz beteak dakartzkigu: bere buruaz beste egin zuen poeta gaztetxo bat, Ezkion Ama Birjina ikusi eta apalzatzen mutila.



"Isiltasunaren adabakiak"

• FAMILIABA • Karlos Lizasoaro • Orrialde kopurua: 197

Apunte laburrez osatutako liburua da "Isiltasunaren adabakiak". Bertan milatik gora apunte daude, egileak 1998tik 2001era bitartean idatzitakoak. Aforismoekin pareka daitezkeen apunte laburrak dira. Hona hemen adabakietako batzuk: Coito ergo sum/Errugabe izateak ez du esan nahi errudun ez garenik/Abeltzain, Kain/ Mihiaren puntan hiltzen diren hizkuntzak/Mikologo lakonikoak: "Onddo esan beharko"...



Europar musika zirkuitu independentea osasuntsu dago. Eta hemen?

Itsaso: Europa aldean jendea gehiago mugitzen da. Hala uste dut, behintzat. Euskal Herrian, ordea, giroa ez da sasoi batekoa bezalakoa. Egungo gazteak oso tabernazaleak dira, eta lokalak alokairuan hartzeko ohitura asko zabaldu da. Ondorioz, gaztetxe askotan oso mugimendu pobrea ikusten da. Kontzertuetan, bereziki; taldeak oso ezagunak ez badira, inor gutxi hurbiltzen da.

Enara: Jendeak ez du ikusminik. Irratian

jartzen diotena besterik ez du entzuten. Hori gutxi balitz bezala, edozein tabernatan ere ipintzen dute musika berbera. Garai batean, kontzertuetara jotzeko ohitura handiagoa zegoen. Sortzen ziren talde berriak ikusteko grina. Orain, taldeak ezezagunak badira, jendeak paso egiten du. Komunikabideek dute erruaren parte handi bat. Irakurri al duzu azken urteotan maketadun talde baten kritikarik inon?

Buenawista eraikinean egiten dituzue entseguak. Etxe hau laster lurrera botako dute.

Enara: Pena handia ematen digu eraikina botatzek. Izan ere, musika alternatiboaren bilgune nagusi izan baita Buenawista Donostian urte luzez. Ederra zen, benetan, hainbeste musika talde elkarrekin ikustea. Gu berandu sartu ginen bertan. Oso gazteak ginen, eta ez genuen xentimorik. Eta Buenawistak musikan aritzeko aukera eskaini digu.

argitalpenak argitalpenak